

Noiz izorratu zen kontua?

Begizolia | © 2026-04-30 18:44



Erbeste

Juan Garzia Garmendia

Erein, 2026

Hainbat interpretazio, erbeste hainbeste

Juan Garzia Garmendiaren *Erbeste* nobelaren interpretazioa egitear nago, eta hara, erbeste-molde hainbeste interpretazio dabilzkidan buruan. Harrigarria bada ere –nolabait harrigarria–, bigarren nobela du legazpiar-irundarrak. Lehenbizikoa, *Fadoa Coimbran*, 1995ekoa duzu. Horratx, 30 urteko *erbestaldia* eman digu eleberrigile lanetan. Anartean, lau narrazio-liburu, bi saiakera eta hamal Lauren bat itzulpen lan egina dugu. Itzulpen lanak, goi-mailako literatura unibertsalaren aparteko itzulpen-lanak.

Oharra: egiari zor eta gezurra ageriko, itzulpen lan horien ene kalifikazioa hutsala dukezu. Izan ere, berauek irakurri gabe –bateon bat salbu– egindako balorazioa duzu-eta.

Nobela interpretatzeko ildoak, ildo zenbait...

- Nobelaren atarian aipu bat duzu**: Arthur Henry Reginald Buller mikologo eta botanikoarena. Irakurri aipua eta arakatu amiñi bat egilearen biografian. Neska(to) bat duzu aipuren *subjektua*. Erlatibitatea, ordea, *objektua*. Hor nonbait.
- Erbeste* suspenseko nobela da, thriller**ra. Tolosa eskualdean emana. Iragan milurteko eta XX. mendeko azken bi hamarkadako erretratu. Haren baitez, nobela, neska(to) delakoa, argazkilaria duzu ofizioz, ofizioz/afizioz eta lanbidez. Izen gabekoa. Bera duzu –20 urte edo– erbestean egon dena. Jaio zeneko –18 urte bete arte bizi izan zen bertan– eskualdera itzuli dena: *Antxurde*-ra. Hor nonbait.
- Nobelako hiria –probintziako hiriburua behiala–**, herriak, herrixkak eta auzoak errealak dira. Protagonista pertsonaien bizitokira –sortetxekeoengana barne– hurbiltzen edo berean murgiltzen denean, historia istorioa bihurtzen da. Fikzioari men egin ez, bistan da.
- Nobelaren narrazioa(k) iraganean eta orainean gauzatzen d(ir)a**, narratzailea protagonista nagusia izaki. Bere oraina Singapur hirian dago. Hogei urte inguru eman du ekialdean, atzerrian. Ideia baten egiteko: Behobia-Bilbo arteko autobidea eraiki zen garaian utzi zuen bere herri-aldea: Tolosaldea. (Euskal) Herriaren lagin ederra. Industrialdea neurtua. Baserritarraren eta burgesaren sinbiosi suerte bat. Jendarte oparo eta neurrikoaren erueda. Euskerdun prototipoaren lekukoa. Besteak beste.
- Milurteko eta mende berriko Tolosa eskualdearen erretratu**a baino, bertako eta protagonistaren familiako pertsonen erretratua da nobelaren zioa. Pertsonak bihurtutako pertsonaiak. Pertsonaien jarraibidean zertutako pertsonak. Narratzailearen hitzek baino, haren begiradek –argazkiek– eskainitako nobela duzu. Haren hitzetan, eskuarki, argazkia errealtatearen irudizatat irudikatzen da-eta.
- Ordea, hizkuntzak berebiziko munta dauka nobelan**. Protagonistaren nebaren rolean –baita aitarenean ere– ageriko duzu alderdi hori. Tolosakoa –eta Beterrikoa berebat –, euskara alegia, tokiko euskara eredu izaki. Tira, Tolosako euskara esan arren –babarrunak bezalakoxea– hiriburuko euskara baino ondoko herrien eta auzokoen euskara eredukotzat ekarria.

Oharra: nobelaren idazlearen euskararen muntaren garrantziaren aipamena geroko utzi dut. Baita euskararen jatoratasuna bera ere.
- Nobelaren tramaz ez dizut deus aurreratuko, ez kontatuko ere**. Bitxia da, haatik, narratzailearen *ezezkoaren* erabilera –ez dakit *linguistikoki* molde hori adierazten–. Narratzailearen atzean edo bere baitan idazlea dago, bistan da. Juan Garzia Garmendia idazlearen jitea edo jaidura. Hor nonbait.

Oharra: badaezpada, perpausen *ezezkoek* ez dute nobelaren literaturaren tasuna epaitzen. Ez onerako ez txarrerako, diot.

8. (...)

Illoak ildo, zazpi beharrean hamaika izan litezke. Hainbat introspekzio segidan

- Erbeste* nobela thriller bat da**. Ordea –protagonistaren aitaren *ordea* gabe ere bai–, berealdiko karga politikoa darama/dakar berarekin. Tira, dena da politikoa, ezta? Haatik, *Erbeste*aren eduki politikoa berebizikoa duzu. Izan ere, nobelaren garaia aintzat hartzera, Euskal Herria –Gipuzkoa zentralistaren erdigunean garatua– politikoki “astindu” zuen fenomeno politikoa "ezin" sakonki azpimarratu gabe utzi –*ezezkoan* ere interpretatzaile hau, hara–. Erran nahi dut, nobelaren zio nagusia politikoa dela.
- Fenomeno politiko-sozial-kultural-armatuaren izenaz** –propio eta berriaz azaldu gabe– jabetu zara atoan, hots, nobela zertaz ari den. *Erbeste* “gure herriaren” tabuez eta enigmez ari zaigu. Bi omen dira norbanakoon enigma nagusiak: heriotza eta giza-sexualitatea. Enigma asko argitu bide dugu, erlatibitatearena barne –Albert Einsteini esker, jakina–, baina aipatu bi horien enigma, ez. Agian, horiek argitu barik, bizirik jarraituko dugu. Espezie legez, diot.
- Politika dela eta, honatz itauna**: “Noiz izorratu zen kontua?”. Galdera hori nobelan duzu. Gure herriaz ari da. Erantzunik bai? Nobelan aurki dezakezu/gu. Irakurle bakoitzak aurkituko du berea. Erbesterea eta ihesa: *Ihesa betea zilegi balitz / nonbait balego bakea / ni ez nintzake etxe ertzeko / loredien maitalea*.
- Nobela gure herriaz ari duzu, errana dizut jada**. Alabaina, bistan da, bistan denez, herritarrek osaren dute herria. Kasuon: Goñitarrek, Ezpeleta doktoreak, Angel/Gotzon apaiza ohiak eta haren emazteak, Pili Prieto ertzainburuak, protagonistaren Izaskun lagunak –haren familiak barne–. Aitaren, Inaren eta amaren a-bizenak ez ditugu ezagutzen. Nobelagintzaren paradigmak. Paradigmak eta enigmak.
- Gure herriaz ari zaigu nobela?** Politikaz ari delako diozu? Bai, baina ez horregatik bakarrik. Dena politikoa bada ere. Gastronomiaz ari zaigulako, diot. Eleberrigileak badaki horretaz. Agerikoa duzu. Arkitekturaz ari zaigulako, diot. Baiki, gure euskal arkitekura erretzet. Baserriaren arkitekturaz. Eleberrigilea kontu horietan jantzia dela begibistan dago –protagonista eta narratzailearen bitartez emana–. Horretaz bestera, gure herriaz ari diren beste seinale batzuk: landatar mundu –*ruralismoa*– enigmatikoa. Animaltasuna. Sorginkeria –arima tasuna, apika–. Hots, gure kultura. Naturaz bestekoa horixe duzu kultura, ezta?
- Ekialdeko kulturaz ere ari duzu *Erbeste* nobela** –mendebaldeko "gure kulturaren" kontrakarrean, hor nonbait–. Alegia, ezin erbestetik itzuli kultura hari buruzko deus kontatu gabe, kultura hark protagonistari inpregnatuaz. Singapur hiria erbestealdiaren erdigunean izaki, *Kintsugi* hitzaren eta izanaren adiera irakatsiko dizu (ber)herriratu berri erberteratuak. *Kintsugi*, beste hitzez beste.

Erakusten arduratua, zaildua duzu neska(toa) –detektibearen rolean besteak beste–, haatik, irakastearen inportantziaz jabetu(ko) da.

7. (...)

Introspekzioak introspekzio, sei paratu dizkizut, andana izan litezke. Literaturaz hainbat kontu edota seinale segidan

- Juan Garzia Garmendiaren lengoaiak badu munta, badu mamia**. Garziaren grazia antzematea duzu kontua. Eta ez da samurra. Edo bai? Hara, baiezkoak badu tokia nirean. Erran nahi baitut, Juan Garziaren –Jon Gartziaren grazia, barka *boutadea*– bagaje linguistikoa itzela duzu. Alabaina, bere *Itzalen itzal* hartan legez –etsenplua duzu, ez adibidea horratik– bere narrazioan itzalak eta argiak aldizkatzen dira aldi berean. Aldi batez zenbaitetan, naski.
- Horiek horrela, ordea, argipen bat nire aldetikoa**, *Fadoa Coimbran* delako hartatik gaur egunera –erranen nuke, ausardiaz errana bada ere– idazleak hizkuntzaren soiltasuna erdietsi duela, baita sotiltasuna ere.
- Itzulpengintza** sortu beharrak ematen duen astuntasunaren lastak laxatu ditu. Hitz lauaren –narratzailearen– arindura kausitu du. Hizkuntzaren (h)arieran jatoratasuna antzeman du. Nilo ibaiaren iturburuaren kasuan legez, jatorria –non den zehatz-mehatz deskubritu gabe– ote duentxo antzeman dut.
- Erbeste* nobela aipaturik**, nobela barrokoa dela esatea gehiegizkoa begitانتzen zait. Izan ere, barroko adjektiboak hainbat adiera ditu. Zein hartzen den, ez da kontua ezkor bat esleitu ahal zaio –atxiki diezaioket–, edo, aitzitik, balorazio bikorren egin. Ez da kontua. Kontua da, ordea, barrokoaren elipsiak aurkituko dituzula. Abisu doi dontsu bat duzu, besterik ez.
- Nobelaren gakoa(k) –generoaz ari nauzu**– denboratasunaren kontrolean eta menderakuntzan da(u)tza. *Erbeste*an hori duzu eginbide. Eleberrigileak lortzen ote duen? Nork bere irakurketa. Nork bere literatur tasuna, literatur taxua eta jaidura. Denboratasunean –*thrillerra* dentxo aldetik– gorabeherak antzemanen dituzu, atzera-aurrerakoak, jakina.

Oharra: irakurle honen gabeziak izan litezke tarteko, noski. Naski.
- Hizkuntzaren erabil moldeaz** edota prosaren tasunaz gehiago esatea ere badago. Hala nola, hizkuntzaren barrokismo horretan, eleberrigileak eskaintzen dizkigun begirada panoramikoak –narratzailearen ikusminaren kamera aktiboaren bitartez–, Besterik ere badut, ordea: nobela suspensekoa den aldetik, nola erran, txisteraz ateratako untzia-koneju-lapinaren paradigma bizi izan dut amaieran. Hala berean, nobelaren trama(k) –familiak familia, sagak saga,...– enigma(k) zabalik dituzu.
- Enigmak enigma, den-dena da politikoa**. Familiaren beraren jarduna politikoa duzu. Bizitza kontu –esperientzia– tragikoa da. *Erbeste* nobela familia-tragediek markatuta dago. Erbesteratuaren familiaren tragediak are modu esplizituagoan: "Egun horretantxe, hara". Erbestetik itzuli den neska(to)ren hitzak dituzu. Zer dituzu hitzon atzean, hitz horien baitan? Hor duzu *Erbeste*. Irakurtzeko aiduru duzu. Eleberria eta eleberrigilea ere bai, naski. Baita interpretatzaile hau ere.
- Zer gehiago espero duzu egotea-esatea?** Zuri ari natzaizu, irakurle. Aurreratuko dizkizut nire aldetiko kontu zenbait. Spoiler egin gabe, ahalaz eta haatik. Aita akabatuko seme-alabek duten jaidura eta beharra kausituko duzu. Amarekiko lotura moztu ezaz; eten ezinezkoa. Alabak, naski. Nebarekiko abelera. Neba batakiko izan ez ezik, birekiko. Bizitzaren nola nobelaren zainua –amaren *seinua* presente betiere– tragikoa duzu.
- Bestelakoa ere bada baduzu, prefosta**. Tolosaldea historiko hura, mundiala, egundokoa eta kolosala ez ezik, gaur *mitikoa* garakatura duzu. Egunez gazteen mintzamoldearen arau toloser. Eta, nobelaren iraganaz gaurkora jauzi egin ez, lizuntzia harturik, erio eterazian, Tolosan gaur egun euskarak baduela ziorik. Zio eta zoria. Zio eta munta. Zio eta grazia. Hor nonbait.

9. (...)

Illoak ildo, introspekzioak introspekzio, literatura-seinaleak tarteko, aitormen azkentxo bat.

- Fadoa Coimbran irakurri nuen bere garaian*. Liburu bati buruzko nire lehenengo iruzkinetako bat egin nuen. *Irunero* aldizkarian argitaratu zen. Domaia, hura ez baitzen **Armiamara** heldu nonbait. Kazetaritza ofizioak harrapatuta, irakurketa eskasa egin(go) nion, hain ziur ere. Bestela ere, hasi berria nintzen literaturaren interpretazio jardueran. Zer ekar nezakeen, ezta?
- Kontuak kontu, hauxe**: nobela bukatu gabe –betaz eskas, egiari zor– iruzkindu nuen. Ausarta behar gero! Are, halaxe eman nuen aditzera testuan. Gaur egun oroiturik, galderaren batekin bukatuko nuen iruzkina, ziur aski. Lotsagabe helakoa. Amaituko nuela nire galderraren idazleari idazkian. Kontuak kontu, nobelaren egilearekin –Juan Garziarekin– geroxeago topo egin nuela akordatzen naiz. Bukatu gabe utzi nuen nobelaren atarramentuaz galdetu zidan –hor nonbait–. Xume eta xalo galdetu ere. Juan Garziaren estiloan.
- Ez dut gogoan eman nion arrapostua**. Hauxe esan dezaket egun: *Fadoa Coimbran* delakoa –delako hura– amaitu gabe iruzkindu nuen. *Erbeste* hau, berriz, bi aldiz irakurri dut. Are, hirugarren batez irakurtzeko irrika eman dit. Literaturaren seinale bat duzu, literaturaren tasunen adierazgarri. Hots, lehen irakurketan ase ezinean diharduzu. Bigarren eginik ere, eskasa zaizu. Nobelaren-janariaren gustu eta aroma guztiak barneratu ezinda geratzen zara, baita nobelaren beraren eraikuntzaren izaera geometrikoaz guztiz jabetu gabe ere. Halaxe nauzu neroni. Hirugarren baten aiduru, beraz.
- Beno, aski ezta? Aseko zara gero ere**. Bai, halaxe espero. Anartean eta amaitu aldera, galderak ditut. Galderak betiere. Hamaika. Kasurako, batto besterik ez dut ekarriko, literaturaz kanpokoa: nire imajinarioan parte bat –idazlearen imajinarioaren akolitoa bihurtzen naizela–, parte batez bedaido –Bedaido edo Berrobi ote den, zeinen ote naogoen?– idazlea Legazpin eta Irunen dago. Hartara, zer dela eta Tolosa?

Zer ezkatutzen duen ez didanean ikusten uzten... Nire imajinazioak, alegia.

5. (...)

Post Scriptum

Barka, *boutade* bat berriz ere. Legazpi eta Irun artean Tolosa dago. Hor nonbait. Behobia-Bilbo autobidearen aitzinetik –*autopista* edota *otorruta*– Norteko Ferrokarrila izan zen.

Beraz...

Bai, *cherchez ce que vous voulez trouver*.

Bertze galdera bat, hondarrekoa: eta *dolar* hitzaren jatorria gure baserrietako *dolare* hitzetik etorria balitz. Haren jatorriko hitza izaki. Jatorrak gero euskaldunok.

Nihil novum sub sole!

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum

Post Scriptum